



BEASAINDIK

Loinatz Udal Musika Eskolaren eraberritzea uda honetan burutuko da



Beasaingo Loinatz Udal Musika Eskolak orain
arteko berrikuntzarik handienari ekingo dio,
egungo beharretara egokitzeko.

Beasaingo Azoka:
bertako eta garaian
garaiko sagar eta ezia

03

A partir del 1 de abril entra
en vigor la nueva ordenanza
OTA con un nuevo sector

05

Beasain eta Ormaiztegi batzen
dituen Salbatoreko bidegorrian
argiztapen berria ezarri da

06



Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Musika Eskolarentzako partitura berria

Uda honetan Loinatz Udal Musika Eskola-ren eraberritze lanak abiatuko dira, espazioen kalitatea eta irakaskuntzarako baldintzak hobetuko dituen. Gaur egun, 309 ikasle, 15 langile eta 15 espezialitate dituen eskola hau Beasainen erdigunean kokatuta dago, herriko dinamika sozio-kulturalaren bihotzean. Musika Banda, Harizko Orkestra, Trikitilari Taldea, Loinatz Abesbatza eta beste hainbat taldek urtean zehar herriari ekitaldi ugari eskaintzen dizkiote, musikak herritarren hezkuntzan, garapen pertsonalean eta aisialdian duen garrantzia erakutsiz.

Udalarentzat, proiektu honen garrantzia erabatekoa da. Historikoki, Musika Eskola herriaren erdigunean egon da, irisgarritasunagatik eta herriko plazarekin duen lotura estua dela eta. Plazatik hurbil egoteak errazten du taldeen emanaldiak eta herritarren parte-hartzea. Hala ere, 1977an sortu zenetik, espazio arazoak izan ditu, ikasle kopuruak eta diziplinak handitu ahala.

Birgaitzeari esker ikasleen eta irakasleen baldintzak hobetuko

dira, ikaskuntza prozesua erraztuz entsegu ordue etekin handiagoa ateratzeko. Udalak proiektu honen bidez herritarren ongizatea sustatu nahi du, musika bidezko garapen sozio-kulturala bultzatuz. Musika Eskolak herrian duen garrantzia kontuan hartuta, eraldaketa hauek ez dute soilik ikasle eta irakasleen baldintzak hobetuko, baizik eta herritar guztien artean musikaren balioa indartuko dute, udalerrriaren nortasuna eta bizitza kulturala aberastuz.

Este verano comienzan las obras de renovación de la Escuela Municipal de Música Loinatz para mejorar sus espacios y la calidad de la enseñanza. Ubicada en el centro de Beasain, la escuela es un pilar cultural que cuenta con 309 alumnos y múltiples grupos musicales. El proyecto de reforma, prioritario para el Ayuntamiento, aborda problemas históricos de espacio e insonorización, mejorando las condiciones de aprendizaje y promoviendo el bienestar y la identidad cultural del municipio a través de la música.



Loinatz Udal Musika Eskola de Beasain afrontará su mayor renovación hasta la fecha para adaptarse a las necesidades actuales. Este centro, actualmente con 309 alumnos, 15 empleados y una amplia oferta académica musical, es un pilar fundamental en la vida cultural del municipio. La transformación tendrá un impacto significativo en la calidad de los espacios y la enseñanza.

Voces autorizadas y relacionadas a Musika Eskola en el pasado y el presente como las de Xabier Sarasola, Arantxa Gastesi y Garazi Zabaleta, actual directora, avalan la intervención. Históricamente, se ha considerado esencial que la escuela permanezca en el centro de la localidad debido a su accesibilidad y cercanía con lugares clave. Las nuevas normativas han definido requisitos más estrictos en dimensiones de aulas y acondicionamiento acústico. Las obras incluyen insonorización de aulas y ampliación de espacios, lo que mejorará la calidad educativa y las condiciones de trabajo. Estos cambios impulsarán nuevos proyectos musicales y contribuirán al bienestar de la comunidad beasaindarra.



Xabier Sarasola, Arantxa Gastesi eta
Garazi Zabaleta. Behean Musika
Eskolaren eraikina.

MARTXOA
2025



Loinatz Udal Musika Eskolaren eraberritzea uda honetan burutuko da

X.S. Udalerrian duen eragina ikusita, Musika Eskolaren kokapena herriaren erdigu- nean egon behar duela garbi duzue

Musika Eskolak herrian duen garrantziaz ohartzeko, berari lotuta dauden talde ezberdinei begiratzea besterik ez dago, hala, Musika Banda, Harizko Orkestra, Trikitilari taldea, Goizeresi Txistulari Taldea, Loinatz Abesbatza, Narama Abesbatza, Txaranga, Perkusio taldea eta bertan dauden folk eta pop talde ezberdinak, urtean zehar herriari emanaldi ugari eskainiz. Guzti horrek, partaideen hezkuntzan, garapen pertsonalean, harremanetan eta aisialdian duen garrantziarekin.

Guzti hori aurrera eramateko, ezin bestekoa da kokapena eta espazio egokiak izatea. Historikoki Musika Eskola plazan egon da eta horrela izan behar duela ikusi izan dugu beti, herriaren erdi-erdian dagoe-lako eta irisgarritasun arazorik ez duelako. Bestalde, musika taldeen irteera ugari herriko plazatik egiten dira, eta bertan egoteak ere asko errazten du lana, Usurbe Antzokia, Parrokia, Frontoi txikia, Plazapea, oso eskura daude eta horiek izaten dira gehienetan aktuazio leku

Igartzako jauregiarekin eta San Martingo Basilikarekin batera.

A.G. Bere sorreratik gabeziak atzeman baziren ere, zein izan dira urtez urte sortzen joan diren beharrak?

1977an Musika Eskola sortu zenean, jada leku falta zegoen: gela handi bakarra eta bi txiki zeuden 30 bat ikaslerentzat. Hori izan zen hasiera.

Gero eta diziplina instrumental gehiago eskaintzen hasi ginen beraz, gero eta leku gehiago behar genuen. Urte gutxitan 30 ikasle izatetik 600 ikasle izatera pasa ginen.

92ko LOGSE legeak beste irakaskuntza eredu bat ekarri zuen, besteak beste, talde parte-hartzeari gehieneko garrantzia emanetz. Beraz, entsegu gela gehiago izatea ezinbestekoa zen. Ahaztu gabe, gainera, Loinatz Abesbatza, Goizeresi Txistulari Taldea eta Koxkola Txarangak Musika Eskolan entseatzen dutela. Musika Eskolak arautzen dituen lege berriak, besteak beste, espazio neurriak ezartzen ditu eta oraingoan guzti hori kontuan izan da.

G.Z. Zuk parte hartu duzu Musika Eskolak izango duen eraberritze proiektu honetako prozesuan.

Musika Eskolak errotik behar zuen eraberritzearen erronkari eutsi behar zitzaiola garbi nuen hasiera-hasieratik eta, egia esan, Udalaren aldetik jasotako arreta eta erantzunarekin oso gustura gaude. Proiektuak bi fase dituen, ez ditugu arazo guztiak lehen eraldaketa honetan gaindituko, baina, etorkizunean izango dugun Musika Eskolari begira ipini gaitu. Batetik, insonorizatutako gelak izateak, ikas-irakaskuntza prozesurako beharrezkoa den kontzentrazioan eragin zuzena izango du. Bestetik, gelen tamaina egokitu eta handitzeak, hala nola, espazio berri gehiago izateak, pairatu ditugun arazo larriak gainditzeko lagunduko digu. Funtsean, baldintza duinagoak eskainiko dizkiogu heziketari: gure lantaldeari eta ikasleari.

Dagoeneko egin dira eta ari gara aurrera eramaten akademikoki interesgarriak bezain aberatsak diren proiektuak, baina eraldaketak bestelako proiektu batzuk martxan jartzen ere lagunduko digu; guztia, herritarren ongizatea bultzatuz, musikak botere hori baitauka.

★ Historikoki Musika
Eskola plazan egon da eta
horrela izan behar duela
ikusi izan dugu beti

Beasaingo azoka



Argazkiak: meetmeinthenorth

HEMENGO SAGARRA

Jose Antonio Elozegi Agirrezabala
(Oñatibi Txiki Baserria, Gabiria)

Gurasoen lekukoa hartuz, aurtentzen hasi da bere produktuak Beasaingo astearteko azokara ekartzen. Bere anaia Aitorrekin buruz buru aritzen da sagarra merkaturatzen. Anaia eta biak hirugarren belaunaldia dira, bertako sagarraren mantentze lanean, bere aitona eta gurasoak ere urte askotan ibili ziren azokatan.

Bertako mahai sagarraren aldeko apustua egitea erabaki zuten. Sagastien azalera 1 hektareatik 2-3 hektareataraino handitu dute 2024an.

Ekologikorako saltoa

Orain artean frutagintza konbentzionalen ibili bada ere, ekologikorako saltoa eman dute Elozegitarrek. Honek zer suposatzen du: tratamendu prebentibo kimikorik ez, kimikorik gabeko sagarrak, kalitate handiko sagarrak. Lan egiteko filosofia da, azken batean produktua zainduz.

Sagarrondoa kulturalki tradizio handia izan duen fruta-arbola izan da. Garai batean baserri askotan zeuden sagastiak. Bide batez, bertako sagarra balioan jartzeko modua ere bada. Jose Antoniok kontsumitzailea bertako sagarra baloratzen hasi dela ikusten du

eta honek poz handia ematen dio. Sagarraren inguruan ezagutza falta handia ikusten du, heziketa handia falta dela.

Mota guztietako sagarrak ditu salgai bere postuan: Idarreta, Bella Boskoop, Errezil-sagarra, etab. Testura, zapora eta erabilera desberdinetarako egokiak diren sagarrak. 28 barietate ditu. Bezeroari entzun eta dituen beharren arabera sagar bat edo bestea aholkatzen dio: konpota egiteko den edo erreta jateko edo... Sagar zuku pasteurizatua ere egiten dute eta kantitate txikiagoan izaten dituzte gerezia eta udareak ere.

Beasaingo azokara etortzearen balioa

Ekoizleek euren lana kontsumitzaileari gerturatzeko bidea da azoka eta ingurumen aldetik, ezagutza aldetik, kulturalki egiten dute ekarpena. Salmenta zuzenaren aldeko apustua eginez, bezeroarekin harremana izateko bidea dira azokak, balio erantsi kulturala dute.

Produktua era zuzenean eskaintzeko apustua eginez etorri ziren Beasaingo azokara. Eskualde mailako bezeroa fidelizatzea du helburu eta horretarako azoka bezeroarengana iristeko plataforma da, hori da azokak duen balio erantsietako bat.

Bertako eta garaian garaiko sagar eta eztia / Eztia eta sagarrak bezalako produktuak urte sa-soi jakin batera daude lotuak eta Beasaingo azokan produktu hauek saltzen dituzten bi ekoizleek etxeko lanari ekiteko, azoka denboraldi batez agurtuko dute.



BERTAN EKOITZITAKO EZTIA

Ataundar erlezain ekologikoa da. Beste lan batzuetan aritu ondoren orain 11 urte erlezaintzara profesionalki dedikatzeak hautua egin zuen.

Erlauntzako produktuak ekoizteaz gain erlezain gisa beste lan batzuk ere egiten ditu: erle erreginen hazkuntza, erle nukleoak... Bertako erle beltzaren hobekuntza genetiko taldean dago jarraipen eta kanpoko lan teknikoak burutuz Erbel elkarteko kide gisa. Gipuzkoako Erlezain Elkarteko zuzendaritza batzordean dago.

Jon Etxeberria Urbizu (Erlezaina, Ataun)

Erlezaintza ekologikoa

Jonek erlezaintza ekologikoa praktikatzen du. Honekin, erleen, ingurumenaren eta pertsonen ongizatean laguntzen du. Eztia ekoizteko modu bat da, ingurumena errespetatzen duen praktika jasangarrietan oinarritzen dena. Helburu nagusia erlauntzen oreka naturala mantentzea eta erleen osasuna eta ongizatea sustatzea da. Erlezaintza konbentzionalean ez bezala (produktu kimikoak eta praktika intentsiboak erabiltzen dira), erlezaintza ekologikoa baliabide naturalen erabilera arduratsuan eta ekosisteman inpaktu negatiboak murriztean oinarritzen da.

Eztia bakarrik ez

Jon Etxeberriaren postuan mota eta loraldi desberdinetako eztiak aurki daitezke baina baita, propolia, polen freskoa, erregina-jelea, argizaria eta abar ere. Bezeroarekin berriketan aritzea eta zuzeneko hartu emana izatea gustuko du produktuaren ezaugarriak eta erabilerak ezagutarazteko.

Udazkenean itzuliko dira azokara

Bertako eztia ere garaiko produktu bat da: ekoizle txikiak eta ekoizpena bukatu dira eta orain udaberriaren garai honi dagozkion lanak egin behar dira. Ezinbestekoa da erlauntzen sendotasuna neurtzea neguaren ondoren; erle kopurua, erle eta erreginaren osasun egoera eta abar.

Sagarra garaiko jakia da eta Euskal Herrian sagar garaia amaitu da. Orain beste lan batzuk egitea tokatzen da: neguko kimaketa lanak, ongarri lanak eta laster sagarrondoak loratuko dira gero fruitua emateko.



Minigarbigune berriak

Herritarrei TAMAINA TXIKIKO hondakin jakin batzuk etxetik gertu uzteko aukera ematea da helburu nagusia, gaur egun ez baitago ezarrita hauentzako bilketa berezirik. Nolanahi ere, dagokion ahotik sartzen ez diren hondakinak ez dira lurlean utzi behar, Beasaingo, Ordiziako edo Urretxuko garbigunera eraman behar dira. Hiru dira kokatu direnak: Barrendain plazan, Igar-tza Oleta 6an eta Ezkiaga etorbidea 3an.

Nuevo Minigarbigune

El objetivo principal es permitir a la ciudadanía depositar determinados residuos de PEQUEÑO TAMAÑO cerca de sus casas, ya que actualmente no está establecida una recogida especial para ellos. En cualquier caso, los residuos que no entren por la boca correspondiente no se deben depositar en el suelo, sino que se deben llevar al garbigune de Beasain, Ordizia o Urretxu. Son tres los ubicados: en Barrendain plaza, en Igar-tza Oleta 6 y en Ezkiaga etorbidea 3.

Argiztapen berria Salbatoreko bidegorrian

Beasain-Ormaiztegi bidegorrian jarritako LED argiztapen berriarekin, mugikortasun jasagarriaren aldeko hobekuntza nabaria lortu da egunerokotasunean bide hau erabiltzen dutenen segurtasun baldintzak hobetuz.

Nueva iluminación en el bidegorri a Salbatore

La nueva iluminación LED instalada en el bidegorri entre Beasain y Ormaiztegi, ha conseguido una mejora sustancial en favor de la movilidad sostenible mejorando las condiciones de seguridad de quienes utilizan esta vía en el día a día.



TAC
OTA
Beasain**S2**SEKTOREA
SEKTOR


- ① TAO sektore berria. Gune marroia, urdina, berdea, egoiliarrena eta plaza libreak. Nuevo sector OTA. Zona marrón, azul, verde, residentes y plazas libres.

S1SEKTOREA
SEKTOR

- ① Gune marroia, urdina, berdea, egoiliarrena eta plaza libreak. Zona marrón, azul, verde, residentes y plazas libres.

ZESEKTOREA
SEKTOR

- ① Ezkiagako egoiliarren gunea eta plaza libreak. Zona para residentes de Ezkiaga y plazas libres.



Nueva ordenanza OTA en abril

A partir del 1 de abril entra en vigor la nueva ordenanza OTA. El municipio contará con un nuevo sector. Las principales novedades serán las siguientes: aparcamientos exclusivos para residentes, los habitantes de los barrios rurales podrán disponer de autorización de residente, autorización para comerciantes -uno por negocio-, se podrán obtener hasta dos autorizaciones de residente por vivienda. Más información en la oficina OTA del Ayuntamiento.

TAO araudi berria apirilean

A pirilaren 1etik aurrera TAO araudi berria ezartzen denean, sektore berri bat izango du udalerrriak. Ekarpen berri nagusiak hauek izango dira: egoiliarrentzako aparkaleku eskusiboak, landa auzoetako herritarrek egoiliar baimena izan dezakete, merkatarientzako baimena -negozio baikoitze-ko bat-, etxebizitza bakoitzeko bi egoiliar baimen lortu ahal izango dira gehienez. Informazio gehiago udaletxeko TAO bulegoan.

2025eko Itzulia Beasainen

Apirilaren 9 eta 10ean, Beasainen goi mailako txirridularitzaz gozatu ahal izango da. Apirilaren 9an etapa amaiera eta hurrengo egunean, apirilaren 10ean, etapa irteera. Ekitaldi honek Beasain txirridularitzaren munduko mapan jarriko du, eta herritarrei kirol ikuskizun zirrargarri bat eskainiko die etxetik irten gabe. Beasain, beste behin, Itzularen eta txirridularitzaren erdigune bilakatuko da.

Itzulia 2025 en Beasain

Los días 9 y 10 de abril, se podrá disfrutar en Beasain del ciclismo de máximo nivel. El 9 de abril, el final de etapa y al día siguiente, el 10 de abril, la salida de etapa. Este evento pone a Beasain en el mapa mundial del ciclismo y ofrece a la ciudadanía disfrutar de un emocionante espectáculo deportivo sin salir de casa. Beasain se sitúa, una vez más, en el foco de la Itzulia y del ciclismo mundial.



Argazkia: Juntxo Unanua

Ogasunarekin euskaraz

2024KO ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ!

Noiz

- **Aitorpenak aurkezteko epea:**
2025eko apirilaren 8tik ekainaren 30era
- **Internet bidez aitorpena aurkezteko epea:**
2025eko apirilaren 3tik ekainaren 30era
- **Autolikidazio proposamenak onartzeko epea:**
2025eko martxoaren 31tik ekainaren 30era
- **Errenta mekanizaturako hitzordua eskatzeko epea:** 2025eko apirilaren 4tik aurrera

Hitzordua eskatzeko, kontsultak egiteko eta argibideetarako:



Telefono bidezko laguntza
943 113 000



Foru Ogasunaren
Beasaingo bulegoa



www.gipuzkoa.eus/ogasuna



Beasaingo
Udala

ERRENTA
2024